


IESUSEN IMITACIONEA

SILVAIN POUVREAU



© Marjinalia Bilduma
1999. urtea

IESUSEN IMITACIONEA

SILVAIN POUVREAU

Apezac
escaraz emana

PARISEN
M.DCLXIX

I Codex Colb. 6295 Acquis. 8087 3

Lehen Liburua

IESUSEN IMITACIONEAZ

Lehen Capitulua.

Munduco vanaloria gucien mesprecioaz.

1. *Nor ere baitarrait eztabilla ilhunbean, aiticitic iñanen du viciaren arguia* (Io. 8, 12), dio gure iaunac. Hauc dira gure Salvaçaieearen hitzac eta hetaz gombidatcen gaitu bere viciaren eta vicitceco antcearen iarraiquitcera nahi badugu eguiazco arguiaz goçatu, eta bihotzeco ilhuntasun¹ gucietaric libratuic ibilli.

Biz bada gure artharic handiena IESUSEn vicitcea hemendic hara gogoan erabiltea.

2. Gure Salvaçaillearen dotrina garaitcen çaye bertce Saindu gucien nahiz diren dotriney, eta norc ere bailuque haren endellegua hartan barrena causi leçaque, ceruco iaquia gorderic².

¹ Itsutarçunetic

² estalliric

Bainan hala guertatcen da non hainitzec, Evangelioa maiz ençunagatic hari iarraitceco desir guti eta hala ere hotzic sentitcen baitute, ceren eztuten³ IESUSen espiritua ardietsi.

Bada norc ere nahi baititu haren hitzac osoqui eta goçoqui iaquin, behar du bere vicitca gucia haren vicitcearen gainean ahal beçambat moldatu.

3. Cer probetchu duçu gauça handiric evastia⁴ Trinitate sainduaren gainean humiltasuna ezpaduçu ceinagabe higoinduco baitçaisco Trinitate sainduari?

Guertuz gauça gozez mintçatceac eztu nihor eguiten saindu eta iustu, baina bai vicitce vertutetsuac hura eguiten du Iaincoaren gogoraco.

Nahiago dut urriqimendua ene baitan sentitu, ecen ez iaquin cer den urriqimendua.

Baceneaqui ere Esqiritura saindu gucia gogoz eta endelleguz, bai eta filosofen erran çuhur guciac bacenaquisqui, cer probechu cenduque handic, charitatea eta gracia gabe?

³ ezpaitute

⁴ erraiteaz

Vanalorien vanaloria, eta guciac vanaloria (Eccl. 1), lekat Jaincoa maite içaitea, eta hari choilqui servitçu eguitea baicen.

Gucien gaineco çuhurcia eta iaquintasuna da ceruco erresumara gogoz eta obraz chedatcea, mundua mesprèçaturic.

4. Beraz vanaloria da galcor diren aberatstasun galcorren ondoan ibiltcea, eta hetan esperança emaita.

Vanaloria da ohoreen ondoan kechatcea, eta gradu edo cargu handietara alchatcea.

Vanaloria da haraguizco guthiciey iarraituitcea, eta, ceren ene gatic garratzqui pensatu behar baita nihor, haren desiratcea.

Vanaloria da vicitce lucearen desiratcea eta prestuqui vicitceaz achola guti içaitea.

Hainitz dira ceinen⁵ iaquite hutsac probetchu guti baitakarqueo arimari edo ez bat ere eta erho handia da norc ere buruan baitarabilla bere arimaren salvamenduco gaucez bertceric. Hainitz hitzguileac eztu arima satiatcen, bainan vicitce prestuac bozten du gogoa, eta consciencia garbiac emaiten du Iaincoa baitaco fidañça handia.

⁵ gauça hequin

3. Cembatenaz areago eta hobequi baitaquiçu hambatenaz garratzquiago iugeaturen çare, sainduquiago vici ezpaçara.

Etçaitecila beraz urguillu icasi duçun officioa edo ardietsi duçun iaquintasuna gatic; aiticic çarela beldur eman içan çaitçun eçagutça gatic.

Iduri badagotçu hainitz gauça daquiçula, eta ongui asqui, halaric ere iaquineçaçu gueyago dela eztaquiçunic.

Ez eguin çure burua iaquin handi, aiticic cinetan aitoreçaçu çure iaqingabea.

Cergatic nahi duçu avantailla hartu bertceen gainean icusiric hainitz bertceric edireiten dela çu baino iaquinsunagoric? eta legueetan frogatuagoric?

Nahi baduçu cerbait icasi eta iaquin çure probetchutan duçun atsegin ceren munduac etçaituen eçagutcen eta ez deus çadutçan.

4. Beregaineco eta probetchu guciz handitaco Leccionea eta iaquintasuna da, bere burua ongui eçagutcea eta mespreçatcea.

Bere burua ezdeus iduquitcea eta bertceez bethiere iugeamendu on eta contu handi eguitea çuhurtcia eta perfeccione handia da.

Nihor icus baceneça ere agueriz bekatutan erorten, edo cerbait gaizqui handi eguiten, etcenduque hargatic çure burua hobe estimatu behar, ceren ezpaitaquiçu noiz artean prestutasunean ahal çaudesquen.

Vanaloria da oraico vicitceari choilqui gogoa emaita, eta etorquiçunari aiticinetic ez behatcea.

Vanaloria da lasterca iragaiten diren gaucey amudio ekartcea eta seculaco bozcarioa dagoen lecura ez lehiatcea.

5. Orhoitçaite maiz ohico erranaz: *eztela beguia asetcen icusteaz, ez eta beharria ençuteaz.* Eccls. 1.

Duçun bada artha, çure bihotzaren atheratceaz icusten diren gaucetaric, eta haren eramaiteaz icusten eztirenetara. Ecen nor ere baitarrayo bere guticien oldeari harc bere consciencia liçuntcen du, eta Iancoaren gracia galtcen.

BIGARREN CAPITULUA

Behar duela nor nahic bere buruaz sendimendu humil eduqui.

1. Badute guciec bere sorcuraz iaquiteco guthicia, ordea iaquiteac cer dakarque Iancoaren

beldurtasunic ezpada? Segur Iancoa servitçatcen duen languille humilla hobeia da, ceruen itçul-inguruan bere burua largaturic miratcen hari den Filosofo urguillua baino.

Nora ere ongui eçagutcen baitu⁶, berehala bere burua chipi daduca, eta eztu atseguinic hartcen munduco laudorioez.

Baneaquisqui ere munduan diren gauça guciac eta ediren banendi charitatez eta graciaz billusiric cer probechu nuque ene obrac gatic iugeatu behar nauen Iaincoaren aiticinean?

2. Largaçaçu iaquiteco guthicia soberaniazco hura, ecen hartan hainitz errebelamendu da eta enganamendu hainitz. Iaquinsunec nahi ohi dute munduac icus detçan, eta erran deçan hainitz iaquinac direla.

Guciac erorcor, hautscor eta flaco gare, bainan eztaduçaçula çu baino erorcoragoric eta flacoagoric badela.

HIRURGARREN MENDUAZ CAPITULUA

*Eguiaren Dotrinaz*⁷

⁶ du nor den

⁷ menduan

1. Doatsua da, nor ere eguiac dotrinatcen baitu, berac ordea, ez figurez ez eta iragaiten diren hitzez, baina bera den beçala.

Gure iduritceac eta usteac maiz enganatcen gaitu eta guti dacusa.

Cer probetchu dakarque gauça estaliric eta gorderic navarmenqui iaquin nahiz erabilteac, ezpaigara acometaturen azquen iugeamenduan ceren halacoric eztugun iaquin.

Gure erhoqueriaren handia! Gauça premiazoac eta probetchusac utsiric gure gogo gucia etchatcen dugu curiosetara eta galgarrietara: beguiac itugula⁸ eztugu ikusten.

2. Cer ansia dugu filosofec bere artean gauça generalen eta berecien gainean darabiltçaten solhasez? Nori ere baitçayo minço Iaincoaren hitza eta çuhurçia, hainitz⁹ opinionetaric libratua da.

Gauça guciac heldu dira hitz batetaric, eta bat hura aippatcen dute guciec, eta hura da gauça gucien ithurburua, guri ere minço çaicuna.

Hura gabe eztu nihorc endellegatcen, ez eta ongui iugeatcen.

⁸ ric

⁹ hura

Norc ere gauça guciac baitadutça bat, eta guciac batetara baitakasque, eta guciac batetan baitacusqui, hura ahal daite bihotzaz finco eta Jaincoa baitan baque iar diteque.

O Ianco eguia, eguin naçacu çurequin bat bethiereco charitatean.

Hainitzetan unhatcen naiz hainitz iracurtceaz eta ençuteaz: çure baitan da nahi eta desiratcen dudan gucia.

Beudez ichilic iaquinsun handiac, beudez creatura guciac hitzic gabe çure aiticinean, çu choilqui, othoy minça çaquisquit.

3. Cembatenaz bilduago, iuntatuago eta iarriago baita nihor bere buruarequin, bertcetara barrayatu gabe, hambatenaz gauça gueyago eta goragoac aditcen tu traburic gabe, ceren arguia içaiten baitu gainetic hequin endellegatceco.

Espiritu garbia, simplea eta fermua, lan hainitz içanagatic ezta kechatcen, ez barrayatcen, ceren gauça guciac eguiten baititu laincoaren ohoretan, eta enseyatcen baita gueldi egoitera beren baitan, deusic beretçat bilha ibilli gabe.

Cerc travatcen eta tarritatcenago çaitu bihotzean daducaçun passione bildumatu gabeac baino?

Guiçon prestuac eta devotac lehen bere baitan ordenatcentu campoan eguin behar dituen lanac, eta eguitecoec hura eztaramate inclinacione gaistoaren guthicietara, aiticitic harc erakartcentu arraçoïnaren neurrira eta chedera.

Norc du gudu gaitzagoric bere buruari garaitcera lotcen denac baino?

Bizquitartean hura behar liçate gure lan handiena içan, gure buruari garaitcea, egun oroz gure burua baino sendoago eta bortitzago iartcea, eta bethi onean gueyago aiticinatcea.

4. Cein ere nahi den perfeccioneri cerbait escas datcheca vicitce hunetan, eta gure behatce gucietan lambrotcen çaisquigu beguiac eta ilhuncen.

Çure buruaren eçagutce humilla bide seguago da Iaincoa gana heltceco, ecen ez iaquintasun gucietan barrena sartcea.

Badaric iaquintasuna edo nahiz diren gaucen eçagutça simplea ezta gaizqui erraiteco, bera den beçala consideraturic ona baita, eta Iaincoac ordenatua, bainan bethiere avantaila eman behar çayo consciencia onari eta Iaincoaren araveraco vicitceari.

Ceren ordea hainitzac enseyatcenago baitira iaquitera, ecen prestuqui vicitcera, hargatic maiz

enganatcen dira eta probetchuric bat ere edo guti baicen eztakarquete.

5. O! Baldin galde curiosic eguitera eta erabiltera ekartcen duten beçambat neque eta ernetasun har baleçate ere bekatuen atheratceco eta vertuteen landatceco, eliçate hambat gaixtaqueria eta escandalisa gendartean, ez eta horrembat largotasun conventuetan.

Segur azquen iugeamendu eguna datorrenean, etçaicu galdeguinen cer iracurri dugun, baina bai cer eguin dugun, ez eta cein ederqui minçatu garen, baina bai cein vertutezqui vici içan garen.

Erradazu, othoy, non dire orai çuc oraino viciric eta collegioetan nausi iarriric eçagutu ditutçun Iaun eta Dotor hec guciac?

Bertceec orai dadutçate hequin lecuac, eta eztaquit hetaz orhoit direnz ere.

Vici cireino baciruditen cerbait cirela, eta oraicoan ezta nihor hetaz minçatcen.

6. O cein laster iragaiten den munduko loria! Ailitçayo hequin vicitcea ardietsi¹⁰ çuten iaquintasunari, orduan erran liteque ongui estudiatu eta iracurri çuquetela.

¹⁰ iarraiqui

Cembat galtcen diren munduan vanaloriazco iaquintasuna gatic, Iaincoaren servitçuz achola guti içanez!

Eta ceren nahiago duten handi içan, ecenez humil, hargatic airatcen çaye burua bere gogoetetan.

Eguiaz handi da norc ere charitate handia baitu.

Eguiaz handi da nork ere baitan chipi baita, eta ohore mucuru guciac ez deus baitadutça.

Eguiaz çuhurra da lureco gauça guciac ongarrı estimatcen dituena IESUSEn iravastea gatic.

Eguiaz choil iaquinsuna da Iaincoaren borondatea eguiten duena, berea utsiric.

LAUGARREN CAPITULUA

Eguitecoey aitcınetic behatceaz eta hetan behar den çuhurciáz.

1. Hitz guciac eztira cinetsteco, ez eta gogoratcen diren guciac, bainan dena den beçala pisatu behar da beguiratuz, eta astiroqui Iaincoaren arauera.

Ha dolorea! hainitzetan errazquiago gure lagunaz gaizquia cinetsten dugu onguia baino, hain flaco baigara ecen.

Ordea guiçon çuhurrec eztituzte berehala berri ekarleac cinetsten: baitaquite guiçonaren flacotasuna gaizkira eroria, minçacorra eta hitzetan erorcorra dela.

2. Çuhurcia handia da eguitecoetan ez lehiatcea, eta bere burua ustetan ez thematcea.

Çuhurciari ere dagoca elhe berri guciac ez cinetstea, eta adituac edo cinetsiac berehala, bertceren beharrietara ez eramaitea.

Har eçaçu guiçon çuhur eta consciencia onetaco baten conseillua, eta duçun artha gueyago çu baino hobeagoric bilhatceaz haren ganic icasteco, ecen ez çure buruco asmatcen ondoan ibilteaz¹¹.

BORTZ-GARREN CAPITULUA

Esqiritura sainduaren iracurtceaz

1. Eguia bilhatu beharda Esqiritura sainduan, ez aharantça ederra.

¹¹ iarraitquitceaz

Esquritura sainduan datčan gucia iracurri behar da eguin ičan den beçalaco espirituarequin.

Esquriturretan lehen bilhatu behar dugu gure arimaren probetchua, ecen ez hitzen çotillecia.

Devocionezco liburu apalac iracurri behar ditugu gauça gozez eta barrenez minço direnac beçain gogotic.

Ez beha ea liburua eguin duenac hainitz edo guti daquienz, bainan eguia hutsaren amudioac gombida çaitçala haren iracurtcera.

Eztuçula ansiaric nor minço den baina behaçau cer den errana.

2. Badoaz guiçonac, bainan Iaincoaren Eguia seculacotz dago.

Iaincoa hainitz moldez minço çaicu nihoren beguitartera behatu gabe.

Gure iaquin nahi eguiac maiz pachelatcen gaitu esquritura sainduen iracurtcean, noiz ere nahi baitugu hetan barrenegui sartu eta simplequi iragan behar liçatequeyena sondatu.

Nahi baduçu probetchuric ardietsi, iracur eçaçu humilqui, simplequi eta fidelqui, eta eztaquiçula secular burura ethor iaquinsun çarelaco aippamenaren nahia.

Eguitçu çure galdeac emequi eta çau de ichil çuhurren hitcen ençuten.

Eztaquisquitçula higoïn çaharren erranac eta comparacioneac, ceren eztira alferic eta arraçoinic gabe atheratcen.

SEIGARREN CAPITULUA

Afeccione desordenatuez.

1. Noiz ere cerbaitez guthiciatcen baita guiçona behar ezten leguez, berehala bere baitan asalatcen da.

Superbioac eta avariciosoac eztute nihoiz ere pausuric: bainan gogoz eta bihotzez pobre eta humil direnac goçatcen dire.

Bere baitan ossoqui mortificatua oraino ezten guiçona laster tentatcen da eta vençutcen gauça appurretan eta ezdeusetan.

Espiritu flaco duena eta haraguizco eta munduco gaucetara nolazpait oraino etcina dena, nequez ossoqui aparta diteque lureco guthicietaric eta hargatic maiz tristetcen da hetaric apartatceaz eta errazqui haserretcen da nihor iartcen baçayo contra.

2. Ordea behin ardietsten badu desiratcen duena, berehala conscienciaren ausiquiac hura kechatcen du, eta erançute eguiten dio, ceren iarraiqui çayon bere guthiciadurari, icusiric etçayola deusetan heltcen bilha cebillan baquearen ardietsten.

Bada guthicien contra iarriz aurkitcen da bihotzeco baque eguiazcoa eta ez hey iarraiquiz.

Beraz ezta baqueric haraguiara, edo campoco gaucetara emana den guiçonaren bihotzean, baina bai guiçon espirituala eta Iaincoa gana pitstua baitan.

ÇAZPIGARREN CAPITULUA

Esperança falsoari eta superbiotasunari ihes eguiteaz

1. Vanaloriazcoa da bere esperança guiçonetan edo creaturetan eçarten duena.

Etçarela ahalke bertceen servitçatcera IESUSen amorea gatic, eta mundu hunetan pobre iduritcera.

Etçaitecila fida çure buruaz, bainan eçar eçaçu çure esperança Iaincua baitan choilqui.

Eguiçu eguin ahala çure aldetic eta Iaincoa helduco çayo çure borondate onari.

Etçaitecila fida çure iaquinaz edo nihoren arteziaz, bai ordea Iaincoaren gracia baitan: harc avantaillatcen baititu humillac eta bere burua handi daducatenac beheititcen.

2. Etçaitecila loria aberatstasunetan, balin baduçu, ez eta adisquidetan ceren handi diren, baina Iancoa baitan, ceinac den gucia emaiten baitu eta desiratcen ere bere buruaren emaitera gauça gucien gainetic...

Etçaitecila urguillu çure gorputzeco handitasuna edo edertasuna gatic, ceren appur bat erituz galtcen da eta itsusten.

Etçaitecila loria çure fetchotasunaz edo espiritu ederraz, beldurrez higoïn çaquiscon Iaincoari, ceinarena baita cer ere onic baituçu çure içaitcz.

3. Eztaducaçula bertceac baino hobea çarela, beldurrez gaixtoago ediren çaitecin Iaincoaren aiticinean, ceinac baitaqui cer den guiçona baitan.

Eztuçula burupenic çure obra onac gatic ceren bertcela iugeatcen du Iaincoac, eta munduac bertcela, eta hainitzetan Iaincoari itsusi çayo munduari eder çayona.

Cerbait onic baduçu, cinetsçaçu bertceec hobeagoric dutela, humiltasuna begira deçaçun gatic.

Eztuqueçu calteric gucien azpian iartceaz, bainan bidegabe handi eguiten dioçu çure buruari bat baino gorago altchatceaz.

Humilla goçatcen da arduraco baqueaz, eta superbioaren bihotzean ostattatcen dira invidia eta bekaitsteria.

ÇORTCIGARREN CAPITULUA

Beguiratu behar dela sobera familier içaitetic

1. Eztieçeçula çure bihotza guciey aguer: bainan eguitçu çure eguitecoac guiçon çuhur eta Iaincoaren beldur batequin.

Gasteequin eta campocoequin eta simplequi, devotequin eta aztura onetacoequin, eta hequin artean minçaçaitte gauça sainduetz.

Etçaitecila treva familier noiz den emacumerequin, bainan emazte prestu guciac orobat gomenda diotçotçu Iaincoari.

Duçun desira Iaincoarequin choilqui eta haren Angueruequin familier içaiteco, eta ihes eguiçu guiçonon eçagutcatic.

2. Charitate behar da gucien aldera, bainan guciequin treve içaitea ezta on.

Batçutan guertatçen da norbait eçagutua eztenean ongui aippatcen dela bere omen ona gatic, eta berac gendartean sarturic lambotcen dituela icusten dutenen beguiac.

Cembait aldiz iduri dagocu bertceey eguiten derauegula atseguin hequin artean sartceaz, eta orduan hasten gare hey higoitcen gure aztura gaixtoac consideratuz.

BEDERATCIGARREN CAPITULUA

Obedienciaz eta azpico iartceaz

1. Guztiz gauça handia da obediencian egoitea, Superior baten azpian vicitcea, eta bere burua ez içaitea bere escuco.

Haguitz segurago da azpico içaitea, Nausi eta Cargudun baino.

Hainitzac obedienciaren azpian daude borchazago charitatez baino, eta halacoec pena dute, arinqui darasate, eta bihotzeco libertatea eztute ardietsico iartcen ezpadira gogo guciaz norbaiten meneco Iaincoa gatic.

Laster eguiçu huna edo horra, çoaz nora nahi, eztuçu pausic edirenen Superior baten manuaren azpian humilqui iarriric baicen.

Iduritzeac eta lecutic¹² lecura aldatceac hainitz enganatu dute.

2. Eguia da batbedera gogotic hari dela iduri dagocanaren arauera, eta lixturtcenago dela berac berac baçalaco sentimendu dutenen aldera; baina Iaincoa gure artean badago, premia da batçutan uts deçagun gure sentimendua baque içaitea gatic.

Nor da hain çuhur non diren guciac ahal daquisquiye?

Beraz etçaitecila sobera perma çure sentimenduaren gainean, baina bertcerena ere ençuneçaçu gogotic; ecen çure sentimendua ona bada eta hura Iaincoa gatic largatcen baduçu bertcearenari iarraitceco, probetchu gueyago handic atheraco duçu.

3. Hainitzetan aditu dut segura dela ençutea eta conseillu hartcea, emaitea baino.

Guerta diteque ere bataren eta bertcearen conseillua on içanen dela; baina bere ez utstea bertceari amor eguitea gatic, arraçoïnac hala nahi

¹² hobequi causitceco

direnean, superbioaren eta navarmenaren seinalea da.

HAMARGARREN CAPITULUA

Beguiratu behar dela soberazco hitzquetetario

1. Ihes eguiçu munduco avarrotzetic ahal beçambat: ceren lureco gaucen tratuac, intencione onez eguiten bada ere, haguitz paxelatcen gaitu: ceren laster atcemaiten baigaitu vanaloriac eta eramaiten.

Nahi nuque hainitz aldiz ichil egon baninz, eta compainietan sartu ezpaninz.

Cergatic ordea hain gogotic solhastatcen dugu elkar, jcusiric gutitan bihurtcen garela jchil egoitera, non eztugun consciencia cerbaitez çaurtu?

Hargatic hain gogo idequiz iartcen gare hitz guiten, ceren elkarrequico solhasez baigabiltça elkar ganic consolacione bilha, eta nahi baiguenduque gure bihotz nahasia eta hainitz gogoeta suertez capatua bide hartaz arindu.

Eta atseguin handi dugu orhoitceaz eta minçatceaz haguitz maite edo desiratcen ditugun gaucez bai eta gure desgogoracoez arrancuratceaz.

2. Ha dolorea ordea! Hainitzetan hutsic eta alferric hari gare ceren campoco consolacione harc eztio calte guti ekartcen barreneco eta Iaincoa gainicaco consolacionean.

Hargatic erne egon behar da eta othoitz eguin arren dembora eztoan alferric.

Sori bda minçatcea eta behar bada, minçaite gauça onez eta arimari ukiten çaisconez.

Gure usança gaixtoac eta aitcinamendu espiritualaz dugun ansia appurrac hala partez eguiten deraucu ahoa largo eta mihia libro.

Badaric ere gauça espiritualez elkarren artean solhas eguiteac eztu arimaren probetchua guti aitcinatcen, noiz ere behintçat borondatez eta gogoz quide direnac elkarganatcen baitira Iaincoaren ohoretan.

HAMECAGARREN CAPITULUA

*Baquearen ardietstea, eta aitcinamendu
espiritualaren desiraz*

1. Baque handi batez goça ahal guindisque nahi ezpaguendu sartu bertceren erranetan, eta eguitecoetan ceinec ezaigaituste ukitcen.

Nolatan lucequi dagoque baque bertceren eguitecoetan balsatcen dena? campoan ocasione bilha dabillana?

Guti edo gutitan bere baitara biltcen dena bere buruaren eçagutceco?

Doatsu dira simpleac ceren baque handia içanen dute.

2. Nondic¹³ saindu batçuc hain bertce perfeccione ardietsi dute, eta hain içan dire arguituac ceruco gaucetan? Ceren hequin lan gucia içan baita lurreco guthiciac osoqui hiltcea bere bihotzetic, eta hargatic arimaco indar guciez itchequi ahal diote Iaincoari, eta egon ahal dira traburic gabe bere barrenaren errecaitatcen.

Gu sobera gatcheste gure passioney eta ioaiten diren gaucez sobera ansiatcen gara.

Gutitan ossoqui garaitcen bagaisco vicio bati, gutitan pitsten gare egunorozco aitcinamendura espiritualara, halatan guelditcen gara hotz eta epel.

3. Gure baitan ossoqui hillac baguine eta barrenean coropillatuac ezpaguine, orduan Iaincoaren gauçac dasta ahal guenetçaque, eta

¹³ Cergatic

cerbait froga guiniroque ceruco eztitasunen
contemplacionetic.

Trabu gucia eta den handiena da, ceren
ezgaren passionetic eta guthicietaric libratuac eta
ceren ezgaren enseyatcen Sainduen bidean sartcera.

Ondicoric gutiena gertatcen çaicunean
lasteregui erorten gare, eta munduco
consolacionetara itçulten.

4. Baldin guiçon sendoac beçala ensey
baguindez gure ahalaz guduan fermu eta finco
egoitera segur icus gueneçaque Iaincoa cerutic
heldu dela guri laguntcera.

Hura prestic baitago guduan hari direney eta
haren baitan esperança duteney heltcera, nola berac
bilhatcen baiterausquigu guducatceco ocasioneac
garai gaquisten gatic.

Iaincotiartasunaren aitcinamendua emaiten
badugu choilqui campoco cerimonietan, sarri fin
hartuco du gure devocioneac.

Bainan aizcora eman deçagun errora arren
passionetic garbituric baquezco bihotzaz goça
gaitecin.

5. Urthetic urthera choilqui vicio huts bat
athera bagueneça errotic, laster guiçon perfet eguin
guindesque.

Bainan orai contra da, eta hainitzetan sentitcen dugu hobeago eta garbiago guinela Iaincoaren servitcura lehenbici itçuli guinenean, ecenez hainitz urthez gueroztico votuaren ondoan.

Egun oroz behar guenduque beroquiago devocionean aitcinatu, bainan orai badirudi gauça handia dela nihorc guti bat iduqui ahal baleça bere lehenbicio bero hartaric.

Appur bat borchá bagueneça gure burua, nahiz den gucia guero bagueneidique errazqui eta allegueraqui.

6. Gaitz da leheneco ohitçaren utstea, baina gaitzago da bere borondatearen contra iartcea.

Ordea garaitcen ezpaçaiste gauça appurrey eta ariney, noiz garaituco çaiste gaitzeney?

Iarçaite hastetic çure inclinacionearen contra, eta ahants bequiçu çure aztura gaixtoa, beldurrez appurca çaramatçan gauça gaitzagoetara.

O icus baceneça cein baque handi ardiets ceneçaquen, eta nola bozcario eman ciniecequen laguney çure prestuqui vicitceaz, uste dut ansiatsuago cinatequeyela çure probetchu espiritalaz.

HAMABIGARREN CAPITULUA

Aflicionetaricaco probetchuaz

1. On da guretçat cerbait gaitz batçutan guerta daquigun, eta norbait iar dadin gure contra, ceren bide hartaz guiçona maiz bihurtcen da bere gana eçagutceco desterruan dela eta eztuela esperançaric eçarri behar munduco gaucetan.

On da guretçat cembait aldiz contra errailleac ditugun eta paira detçagun, bai eta gutaz iugeamendu gaixtoric eta makurric eman deçaten, ongui eguiten dugularic, eta intencione onarequin.

Horrelacoac heltcen çaisquigu humiltasunaren ardietsten, eta beguiratcen gaituste vanaloriatic.

Ecen orduan Iaincoa hobequi hartcen dugu gure barrenaren lecuco, munduac campotic deus gutitçat garabiltçanean, eta cinetsteric etçaicunean emaiten.

2. Halacotz behar luque guiçonac Iaincoa baitan ossoqui permatu, mengoaric ez içaitea gatic hainitz munduco consolacioneren bilha ibilteco.

Noiz ere borondate onezco guiçona tribulatcen baita, edo tentatcen, edo gogoramendu gaiztoz penatcen, orduan eçagutcen du Iaincoaren

beherago dela, eta icusten du hura gabe ecin daidiqueyela deus ere onic.

Orduan ere tristetcen da, hatsbeherapenez, nigarrez eta othoitzez iartcen da pairatcen dituen miseriac gatic.

Orduan unhatcen da vicitce luceaz eta desiratcen du herioa datorren haren libratcera eta IESUSgana eramaitera.

Orduan oraino ongui dacusa munduan ecin ditequeyela segurança betheric eta baque ossoric.

HAMAHIRUR-GARREN CAPITULUA

Testamenduen contra iartceaz

1. Munduan vici gareino ecin garatesque tribulamenduric eta tentamenduric gabe.

Halatan esquiribatua datça Ioben liburuan guerla eta tentacionea da guiçonaren vicitcea lurraren gainean.

Horren gatic beharluque batbederac ansiatsu iarri tentamenduen gainean, eta erneric egon othoitzetan, beldurrez etsayac aurqui deçan lecuric haren enganatceco; nola ezpaita nihoiz ere loakartcen, bainan inguruz baitabilla nor irets deçan bilha.

Ezta nihor ere hain compliric eta hain sainduric, non ezten noizbait cembait tentacione, eta ecin gaudesque ossoqui gabe.

2. Guciarequin ere batçutan tentacioneac haguitz onac dira guiçonarentçat gaitzac direlaric eta fasticagariac, ceren hec direla bide humiltcen baita, garbitcen eta çuhurtcen.

Saindu guciac iragan dira tentacioneen bide pelcarretic, eta probetchu athera dute hetaric.

Tentacioneac ecin iasan ditustenac Iaincoaren umeen contutic erori dira eta galdu.

Ezta hain ordena sainduric ez eta hain lecu gorderic non ezten han tentagarriric eta pairatcecoric.

3. Ezta guiçona ossoqui seguratua tentacionetaric vici deino ecen gure baitan barrena datça nondic tenta gaitecin guthiciaduraren jehetiarequin sortu garenetic.

Tentacione edo tribulacione bat ioaiten denean, berehala heldu da bertcea eta bethi içanen dugu cer paira, ceren gure doatsutasunaren avantailla galdu baitugu.

Hainitz bilha dabilta nondic ihes eguin tentacionetaric, eta gaitzagoetan barrena erortcen dire.

Ihesi ioan hutsez ecin garai gaitesque bainan pacienciaz eta eguiazco humiltasunaz bortitzago eguiten gare etsay guciac baino.

4. Campoco ocasioney¹⁴ choilqui itçultcen çayenac, eta barreneco erroac atheratcen eztituenac probetchu guti eguinen du: aiticic lasterago bihurtuco çaisco tentacionea, eta gaizquiago içanen da.

Baratcheca pacienciaz eta irautez (Iaincoarequin batean) hobequi garaitu, çaiste buru gogorca iarriz baino.

Hareçaçu maiz conseillu achurbaten ganic tentatua çarenean, eta nihor tentatua denean etçaitecila harequin hari gogorqui, bainan hura consolaçaçu emequi, nahi cenduqueyen beçala nihorc eguin cinitçan.

5. Tentacione gaixto gucién hastea da bihotzaren fermugabetasuna, eta Iaincoa baitaco fidança appurra.

Eçen nola uhinec lema gabeco untcia hortíc eta hemendic baitarabillate, hala guiçon epela, eta

¹⁴ taric

bere lehen gogo ona largatzen duena hainitz
maneraz tentaturic dabilla.

Suac frogatzen du burdina, eta tentacioneac
guiçon iustua.

Hainitzetan eztaquigu cer daidigun bainan
tentacioneac eracuzten du cer garen.

Badaric ere erne egon behar da beregainqui
tentamendua alchatcen denean, ceren orduan
etsayari garaitcen çayo nihor errazquienic utsten
ezpadu nihola ere bihotzeco athetic sartcera, bianan
athalasetic campora ilquitcen baçayo athea
bulcatcen diren beçain laster.

Halacotz erran du norbaitec: *Hastetic eguiçu
guardia, beranduric heldu da erremedioa, çahartu
denean çauria.*

Hala ere lehenbiciric heldu çayo gogoari
pensamendu arin bat, guero tinkatcen da haren
gainean, handic pitzten da atseguina, eta higidura
gaixtoa, eta finean gogoac emaiten du
consentimendu ossoa.

Hala etsay gaixtoa baratche sartcen da
barrena hastetic eguiten etçayonean contraric, eta
cembatenaz naguitcenago baita nihor haren
kentcera, hambatenaz bere baitan egun oroz
flacatcenago da, eta etsaya borthitztenago haren
contra.

6. Batçuc tentacione gaitzagoac pairatcen tuste Iaincoaren servitçura lehenbici itçuli direnean, bertceec azquenean.

Batçuc bere mende gucian casic gaizqui erabilten dira: bertceac emequi asqui tentatcen dire, edo ez bat ere.

Hori gucia eguiten da Iaincoaren çuhurciac ordenatcen diren arauera, ceinac pisatcen baititu batbederaren estatua eta merecimenduac, eta den gucia aiticnetic ordenatcen baitu bere hautatuen salvamendura.

7. Hargatic eztugu etsitu behar tentatcen garenean: aiticitic hambatenaz beroquiago othoitz eguin behar diogu Iaincoari arren hel daquigula gure tribulacione gucietan, eta eguin deçala Iondone Pauloc dioen beçala, *probetchu athera deçagun tentacionetic*.

Humil detçagun bada gure arimac Iaincoaren escu botheretsuaren azpian tentacione suerte gucietan, ceren harc bihotz humillac salvatucoitu eta goitituco.

8. Tentacionetan eta tribulacionetan frogatcen da guiçona, cembat probetchu eguin duen, eta hetan merecimendu gueyago du, eta haren vertutea hobequi da agueri.

Ezta gauça handiric guiçona devozionean bero içaiteaz fasticoric eztuenean, ordea dembora gaitcean paciencia badu hainitz probetchuren esperança da.

Batçuc beguiratcen dira tentacione handietaric eta maiz erorten dira egunorozcoetan, mendeac direlaric arren horrela humilduric fida ezittecilla bere indarretan, tentacione handiric guerta daquienean, hain appurretan falcatcen direnaz gueroztic.

HAMALAU GARREN CAPITULUA

Iugeamendu arinetic beguiratceaz

1. Itculetçatçu beguiac çure gana eta beguira çaitte bertceen eguinez iugeamendu emaitetic.

Bertceric iugeatcen duena alferric travaillatcen da, maiz enganatcen da, eta errazqui eguiten du bekatu: baina bere burua iugeatcen duena eta sondatcen duena bethi probetchurequin hari da.

Nahiz den gauçaz hainitzetan iugeatcen dugu gure iduriaren arauera: ceren eguiazco errazqui galtcen dugu gure buruari diaducogun amudioa gatic.

Iaincoa baliz behiere gure desiren chede hutsa, ez guindesque horrein errazqui asalda eta trubla gure guthiciac gure contra iarriac gatic.

2. Maiz ordea çerbait dugu barrenan gorderic, bai eta campotic heldu denic, berequin garamatçanic.

Hainitzec bere eguitartetan bere oldea eta avantaila ichilic bilhatcen dute, eta berac eztaquite.

Badirudite baque onean daudecila eguitecoac eguiten direnean bere nahiaren arauera: bainan eguiten badira desira eztuten beçala laster aldaratcen dira eta tristetcen.

Bataren eta bertcearen usteac eta iugeamenduac ez içanez guciac bat, maiz asco sortcen dira guduac eta iharduquitçac adiquideen eta burgesen, fraideen eta devoten artean.

3. Usança çaharra nequez utsten da, eta nihor ezta errazqui guidatcen icusten duen baino urrunago.

Permatcenago baçare çure arraçoïnaren eta antcearen gainean Iesu Christori çor dioçun obedienciazco vertutearen gainean baino, gutitan eta hala ere berant içanen çare arguitua.

Ceren Iaincoac nahi du ossoqui iar gaitecin haren azpian, eta amudio iracequi batez iragan gaitecin arraçoïn suerte gucien gainetic.

HAMABORTZGARREN CAPITULUA

Obra charitatez eguinez

1. Munduan den gauça gatic eta nihoren amudioa gatic ezta eguin behar gaizquiric bat ere: bainan norbaiten beharra gatic obra on bat batçutan cilheguiqui uts diteque edo, hobeago batetara gambia daite.

Ceren horrela eguinic, obra on ezta galtcen, bainan hobeagora gambiatcen.

Charitatea gabe obra onac eztakarque probetchuric: baina cer ere eguiten baita charitatez, cembat ere appurra eta ezdeusa baita, gucia eguiten da probetchugarri.

Ceren Iaincoac behatchenago du cer gogoz hari den nihor, ecenez cembat eguiten duen. Hainitz eguiten du haguitz maite duenac.

2. Hainitz eguiten du, obra ongui eguiten duenac. Ongui eguiten du comuna servitçatcenago duenac bere borondatea baino.

Hainitzetan badirudi charitateaz hari garela, eta aitcitic sensuen oldez hari gare, ceren sorcuraren inclinacioneac, bere buruco borondateac, ordainaren esperançac eta beretçat nahizco desirac gutitcen nahi dute elkar ganic apartatu.

3. Norc ere eguiazco charitatea baitu, eztabilla deusetan ere beretacorik bilha; bainan desiratcen du choilqui Iaincoaren loria gauça gucietan compli dadin.

Eztio nihori ekartcen jnvidiaric ezpaitu allegriança bereciric beretçat maite: eztu ere nahi bere baitan bozcariotu, baina duen desira da gucien gainetic Iaincoa baitan doatsu içaitea loriatcea.

Eztio nihori onguiaz eta on denaz loria emaiten, baina bai Iaincoari, ceina ganic ithurburutic beçala, on den gucia heldu baita, eta ceina baitan saindu guciac bere azquen chedean beçala, goçoqui pausatcen baitute.

O Nihorc balu eguiazco charitatearen inhar bat! Segur eçagut leçaque lureco gauça guciac vanaloriaz betheac direla.

HAMASEYGARREN CAPITULUA

Bertceren escasac pairatceaz

1. Cer ere guïonac ecin chuchen baiteçaque bera edo laguna baitan, hura behardu pacienciarequin utsi, Iaincoac bertcela ordean deçan artean.

Pensaçaçu hori horrela nazqui hobe dela nor çaren eçagutceco, eta, çure pacienciaren frogatceco, ceina gabe gure obra onac ezpaitire haguitz preçatcecoac.

Alabainan othoiz eguin behar dioçu Iaincoari halaco trabuac gatic, arren hel daquiçula, eta emequi pairatceco indarrac disquitçula.

2. Baldin cembaiti behin edo bietan bere hutsac escasac makurrac eracusiz gueroztic, harc ençuten ezpaçaitu, çuc ez iharduqui harequin, baina den gucia utsaçu Iaincoaren escuetan, arren bere borondatea compli, eta bere ohorea eracuz deçala bere servitçari gucietan: ceren harc badaqui gaitzaren onera itçultcen.

Ikasaçu pacienciatsu egoiten lagunaren huts eguinac eta nahiz diren escas-makurrac pairatu behar direnean: berdin çuc-ere hainitz duçu bertceac pairatu behar dutenic.

Çure burua ecin eguin badeçaqueçu nahi cenduqueyen beçalaco, nolatan bertcea eguinen ahal duçu, çure googaren araueraco.

Placer dugu bertceac diren escasic gabe, eta bitartean gueuroc eztitugu gure makurrac chuchentcen.

3. Nahi dugu bertceac hersiqui chuchen eta sensa ditecin; eta geuroc eztugu nahi deusic erran daquigun erantçuteri eguin daquigun.

Bertceen escudancia handia etçaicu eder, eta halaric ere nahi dugu escatcen garen gucia eman daquigun.

Nahi dugu legue hersiac eman daquisten bercey, eta gueuroc eztugu nahi nihola ere lehen baino hersiquiago ibilli.

Handic bada agueri da cein gutitan eguiten dugun contu gure lagunaz contu gure buruaz beçala.

Guciac escasgabeac balire, cer guenduque guero bertceen ganic pairatceco?

4. Orain bada Iaincoac hala ordenatu du ikas decaguntçat batac bertcearen cargaren iasaiten:

Berdin ezta nihor escasic gabe, nihor cargaric gabe, nihor bere buruarentçat asquidun, nihor beretçat asqui çuhur.

Behar da bada elkar iasan deçagun, eta consola deçagun, elkarri hel gaquizcon, elkarri

jrakatz dioçogun, eta batac bertceari avisu eta conseillu demogun.

Çori gaitzean agueri da guiçonaren vertutea hobequienic: ceren ocasioneac ezpaitu guiçona eguiten hautscor edo flaco, baina nor eta nolaco den eracuztendu.

HAMAÇAZPIGARREN CAPITULUA

Monasterioetaco vicitceaz

1. Behar duçu ikasi çure borondatearen hautsten hainitz gauçatan nahi baduçu çurequin eta bertcequin baquea iduqui.

Ezta guti monasterioan edo congregacionean egoitea, eta han arrencuraric gabe vicitcea, eta fidel irautea heriotceraino.

Doatsua da nor ere han prestuqui vici içan eta ongui hil baita.

Nahi baduçu çure eguinbidean egon eta probetchuric eguin, contu eguiçu desterratua eta Saindurala beçala çabiltçala lurraren gainean.

Behar duçu çure burua eguin eztio Iesusen amorea gatic, nahi baduçu vicitce saindu bat eraman.

2. Habituaç eta koroac guti heltcen dute probetchu eguitera, bainan azturen gambiamenduac eta guthicien passioneen mortificacione ossoac eguitendute eguiazco fraidea.

Iancoaz eta bere salvamenduaz bertceric, bilha dabillanac eztu aurkituco tribulamenduric et doloreric baicen.

Eta dembora lucez ecin dagoque baquean nor ere ezpaita enseyatcen chipien içaitera, eta gucien azpico iartcera.

3. Etorri çare servitçatcera eta ez manatcera.

Iaquineçaçu deitua çarela pairatcera eta travaillatcera, ez ordea alferric egoitera edo elhe eta solhas eguitera.

Hemen bada frogatcen dire guiçonac, urrea labe gorrian beçala.

Ecín dagoque nihor hemen, nahi ezbadu bere burua bihotz guciáz¹⁵ Iaincoa gatic humildu.

HEMEÇORTCI GARREN CAPITULUA

Aitcineco Sainduen exempluez

¹⁵ assoz

1. Miratçatçu Sainduen exemplu viciac, ceinac baitan eguiazco baitute, eta icusico duçu cein guti eta ezdeus hurren den guc eguiten dugun gucia.

Helaz! cer da gure vicitcea hequinarequin comparatcen bada?

Sainduec eta IESUSen maitarico Iaincoa servitçatu dute gosez eta egarriz, hotzez eta billusiz, ibilliz vigilietan eta baruretan, othoizetan eta meditacione sainduetan egonez, munduac hainizetan gaizqui eta laidozqui cerabiltçala.

2. O cembat tribulacione eta cein garratz pairatu tusten, Apostoluec, Martyrec, Confessorec, Virginec eta gure Salvatçaillaren urratzey iarraiqui nahi içan çaiste gaineraco guciec!

Ecen bere arimac gaitzetsi tuste mundu hunetan, guero hequin jabe, içaiteco seculaco vicitcean.

O cein vicitce hersi pobre desertuan¹⁶ eramam dute lehenagoco Sainduec!

Cein tentacione luce eta garratz pairatu dituste!

Cein gaizqui hainizetan erabili dituen etsayac!

¹⁶ beharrez gabetu

Cein othoitz uçu eta bero eguin dioten
Iaincoari!

Cein gogorqui barurtu diren!

Cein beroqui hari içan diren bere probetchu
espiritualaren aitcinatcen!

Cein guerla bortitz eguin duten bere guthicia
gaixtoen hezteco eta garaitceco!

Cein bihotz garbi eta chucen iduqui duten
Iaincoa gana!

Egunaz hari ciren travailluan, eta gauaz
othoitzetan ceudecin: eta lanean ere gogoz eguiten
çuten oracione.

3. Dembora gucia ceramaten gauça
beharretan: Iaincoari eman behar cioten orena
iduritcen citiçayen labur eta contemplacionaren
eztitasuna cela causa gorputzeco othurunça
premiázcoa ere ahanstén citiçayen.

Uko eguiten ceraueçaten aberatstasun,
ohore, gradu, adisquide eta ahaide guciey, etçuten
munduco gauçaric iduqui nahi; nekez vicitceco
hartcen çuten, damu çuten gorputzaren
servitçatceaz beharrean ere.

Bada lureco gauzez pobre ceudecin, baina charitatez eta vertutez betheac ciren.

Campotic beharrac ciren, baina barrenean Iaincoaren graziaz eta consolacioneaz goçatcen ciren.

4. Mundutic apartatuac ceudecin, baina Iaincoaren hurrenac eta adisquide mamiac ciren.

Berec uste çuten ezdeusac eta munduco arbuyua cirela, bainan Iaincoaren beguietan preçatcecoac ciren eta onetsiac.

Eguiazco humiltasunean ceudecin, obediencia bethean vici ciren; bacebiltçan charitaterequin eta pacienciarequin, eta halacotz egun oroz bere probetchu espirituala aitcinatcen çuten eta gracia handiago ardietsten Iaincoaren aitcinean.

Mirailtçat eman çaiste fraide guciy eta gueyago atçartu behar gaituste onean aitcinatcera ecen ez epelen ozteac guibelatcera.

5. O cein bero eta iracequiac ciren fraide guciac bere ordena sainduen lehenbico hastean!

Nolaco devocione othoitzetan!

Nolaco pitztura vertutetan!

Nolaco dotrinamendua vici cen!

Nolaco erreverencia eta obediencia ekartcen
cioten nausiarri erregelamenduari gauça gucietan!

Azquendu diren seinaleac eta ondarrac orai
ere lecucore dire, hec guizon compliac eta sainduac
cirela, hain agudoqui gducatuz mundua azpira
dutenaz guero.

Oraicoan handi estimatcen da nihor, bere
erreglen hautste ezpada, bessarcatu duen ordenança
pacienciarequin beguira ahal badeça.

6. O gure estatuco epeltasuna eta
ansigabetasuna! hain laster itçulten baigare gure
leheneco berotasunetic, eta unhatcen ere vicitceaz,
hain nekatu eta epeldu baigara ecen.

Iaincoac ailliotse vertuteen aitcinamendua
elicen ossoqui loakartu çure baitan, hain bertec
guizon devoten exempluz icusiz gueroztic!

HEMERETCI GARREN CAPITULUA

Fraide prestuaren essercicez.

1. Fraide prestuaren vicitceaz behar du
vertute guciez arguitu, arren nolacoa munduac
icusten baitu campotic, halacoa ere den barrenean
bere baitan barrena.

Eta eguiaz çucenac nahi du gueyago haguitz den barreanean, campotic agueri den baino: Ecen Iaincoa beguira¹⁷ dagocu, eta beregaineco erreverencia ekarri behar diegu non ere baigara, eta garbiric ibilli behar dugu haren beguien aitcinean angueruac beçala.

Egun guciez berritu behar dugu gure deliberamendu gogo ona eta gueuroc atçartu behar gare beroquiago haritcera, egun lehenic Iaincoaren servitçura itçuli baguine beçala bihotzez erraiten diogula: hel çaquisquit Iainco Iauna ene gogo onean eta çure servitçu sainduan; orai indaçu egun behar beçalaco perfeccionerequin hasteco gracia eta indarra berdin huneraino eguin dudana ezta deus ere.

2. Nolacoa baita gure gogo hartua, halacoa ere da gure aitcinamenduaren corsua, eta norc ere nahi baitu hainitz probetchu eguin errequi eta agudoqui hari behardu.

Baldin cinetan deliberatcen duen ongui eguitera maiz flacatcen bada eta erortcen cer içanen da gutitan eta ez asco tinketz deliberatcen duenz?

Bada hainitz moldez guertatcen gare gure gogo onaren largatcen, eta cembat ere arinqu

¹⁷ beha

utsten baititugu gure esserciçac, miracuillu da handic heldu ezpaçaicu calteric.

Iustuen deliberamendua permatcenago da Iaincoaren graciaren gainean, berec ahal duqueten çuhurciaren gainean baino: eta cer ere eguitecori lotcen baitçaisco, bethi haren baitan lehenic fidaturic hari dire.

Ecen deliberatcen du guiçonac eta Iaincoac ordenatcen, eta guiçona ezta here bidearen nausi.

3. Baldin charitatezco obra gatic edo lagunaren probetchua gatic batçutan largatcen badugu gure esserciça costumatua, hartara guero errazqui bihurtuco ahal gare.

Ordea ansigabez edo unhatuz utsten badugu, gure falta jçanen da eta sarri sentituco dugu caltea.

Daguigun eguin ahala, oraino hainitz gauçatan errazqui eguinen dugu huts.

Badaric ere bethi dugu cerbait deliberatu eta beregainqui gueyen travatcen gaituten escasen eta makurren contra.

Gure campoco eta barrenaldia miratu, sondatu eta ordenatu behar dira, ceren bata eta bertcea orobat heltcen çaisquigu gure probetchu espiritualaren eguiten.

4. Ecin baçaudesque bethi gure buruaren miratzen.

4. Bethi çure baitara ecin bil baçaitesque, batçutan bedere eguin çaute, eta gutiengan behin egunean goizean edo arratzean.

Goizean hareçaçu gogo eguin nahi duçunaren eguiteco, eta arratzean miracaçu nola ibilli çaren, egun hartan nolacoa ičan çaren çure hitzetan, obretan eta pensamenduetan, ceren maiz nasqui hetan offensatu duçu Iaincoa eta laguna.

Iarçaitte guiçon guiça deabruaren gaixtaquerien contra: bridaçaçu gormandiça, emoçu neurri çure ian-edan nahiari, eta orduan haraguiaren muguidac errazquiago hezico tutçu.

Etçaudecila nihoiz ere alferric, bainan hari çaute iracurtcen edo esquiribatcen, othoitz edo meditacione edo cerbait onic comunarentçat eguiten.

Badaric gorputzeco travailluac neurriz, eta çuhurciarequin eguin behar dire, eta guciec ezituste berdin hartu behar.

5. Gucientçat on eztiren lanac eztira campoan eracusi behar, ceren particularac peril gutiagorequin eguiten dira ichilic.

Guçiarequin ere beguirauçu naguitcetic comunari ukicen çaiscon gaucetan, eta particularetan iarriago içaitetic: bainan eguin beharrac eta manatuac ossoqui eta fidelqui eguin ondoan, dembora sobera baduçu, hari çaitte çuretçat çure devocioneac aguintcen duen arauera.

Lan her bat ecin duquete guciec; baina bata hobe da hunentçat, bertcea horrentçat.

Demborac dakarqueyen beçala bertce eta bertce esserciçac ederetstentugu, batsu bestetan eta bertceac astelegunetan maiteago ditugu.

Batçuen beharra dugu tentacionearen demboran, eta bertceac hobe çaisquigu baquean eta soseguan gaudenean.

Batçuetan laket dugu triste gaudenean, eta bertcetan Iaincoa baitan alleguera garenean.

6. Besta buruac heldu direnean berritu behar dira eserciça onac, eta beroquiago gomendatu behar gaisco sainduen arartecotasunari.

Bestatic bestara deliberatu behar dugu, orduan mundutic jlki, eta seculaco bestaren eguitera ioan behar baguine beçala.

Halacotz devocionezco egunetan behar dugu gure consciencia arthatsuquiago preparatu, çuhurquiago ibilli, eta ordenançac hersiquiago

beguiratu, sarri gure travailluaren saria Iaincoa gatic ardietsi behar beguendu beçala.

7. Eta guibelatua bada, daguigun contu ez garela ongui asqui preparatuac, eta eztugula oraino mereci loria handi haren ardiesten, ceina eracusi baitçaicu bere muga iaquinean: bizquitartean enseya gaitecin ahalic hobequiena preparatcera hemendic ilki behar orduco.

Doatsua da, dio san Luc Evangelistac, Nausiac, datorrenean, erneric aurkituco duen servitçaria. Eguiaz diotsuet hura eçarrico du ordenez bere ontasun gucien gainean.

HOGOYGARREN CAPITULUA

Bakarric eta ichilic egoiteco amudioaz

1. Bilhaçaçu dembora onic çure buruaren astiroqui estudiantceco, eta Iaincoaren ongui eguinac erabiltçatçu maiz gogoan.

Utzquitçu urriquimendura erakar çaitçaten liburuac, ecenez demboraren iragaitecoac.

Apartatcen baçare solhas eta ioan ethorri alferretaric eta elheberrietaric demboraric asqui causituco duçu meditacione onic eguiteco.

2. Norbaitec errandu: *Noiz ere guertatu bainaz guiconequin, gutiago guiçon bihurtu naiz.*

Hori frogatcen dugu maizenic, dembora lucezco solhasquerietan.

Errazago da, jchilic egoitea, hitz sobera ez eguitea baino.

Errazago da etchean gorderic egoitea, campoan bere buruaren asqui beguiratcea baino.

Norc ere bada gogoric baitu barreneco eta espiritualezco gaucetara heltceco behardu Iesusequin batean munduco ozpetic eta avarrotzetic apartatu.

Ezta nihor segurançarequin campora atheratcen gogotic gorde dagoena baicen.

Ezta nihor seguragoric minçatcen, gogotic ichilic dagoena baino.

Eztu nihorc perillic gabe manatcen, ongui obediten icasi duenac baicen.

3. Ezta nihor segurancarequin bozten, consciencia ona ez padu lekuko: guciarequin ere Sainduen segurança bethi içan da Iaincoaren beldurtasunaz bethea; eta eztira gutiago arthatsu eta humil içan hainitz vertute eta gracia bere baita içana gatic.

Ordea gaixtoen segurança sortcen da urguillutasunetic, eta azkenean enganatcentu.

Eztioçoçula çure buruari segurançaric prometa vicitce hunetan, iduri dagotçularic fraide prestu edo Ermitau devocionetsu çarela.

4. Hainitzetan munduaren ustez hobe cirenac peril handiagotan sartu dire sobera bere baitan fidatuz.

Halacotz hainitzentçat hobe da eztaudecin bethi ere tentacione gabe, baina maiz acometaditecin, beldurrez sobera fida ditecin, urguilluqueriac hart detçan, eta larguequi ibil ditecin campoco consolacioneen ondoan.

O nihor balego ibilli gabe iragaiten den allegriançaric bilha, munduco eguitecoetan balsatu gabe, cein consciencia on eta garbi iduqui leçaque.

O nihorc evaqui baletça vanaloriazco ansia guciac, salvagarrizco eta Iaincozco gauçaric baicen gogoan ezpalerabilla, eta bere esperança ossoa Iaincoa baitan eçar baleça, cein baque eta sosegu handiz goça liteque!

5. Eztu nihorc ceruco consolacionea mereci, cinetan iarten ezpada urriquimendu sainduaren essercian.

Nahi baduçu urriquemendua bihotzean frogatu, sar çaitte çure guelan eta egoitzquitçu munduco avarrotzac, esquiribatua den beçala: *çuen ohetan iar çaiteste urriquitcen.*

Guelan aurkituco duçu campoan maiz galduco duçuna.

Guela eztitcen da hartan arduraqui¹⁸ egonez, ez egonez unhagarri.

Çure oneramenduaren hastetik hartan fincatcen baçara, eta haren beguira baçaude, içanen da guero çure adisquide maitea, eta consolacione goçoena.

6. Ichilic eta gueldiric egoitean aitcinatcen du arima devotac eta esqirituretaco gauça gordeak icastentu.

Han aurkitcentu nigar chirripac bere buruaren gau guciez chucateco eta garbitceco, bere creatçaillearen hambatenaz hurbillago egoitea gatic, cembatenaz urruntcenago baita munduco avarrotcetatic.

Nor ere bada apartaturen baita eçagunetatic eta ahaidetatic, hari hurbilduko çayo Iaincoa bere aingueru sainduequin.

¹⁸ egiten da goçagarri

Hobe da gorderic egoitea, eta bere buruaz artha iduquitcea, ecen ez hura largaturic miracuilluac eguitea.

Gauça laudatzecoa da guiçon devocionetsu batentçat gutitan ilkiteco campora, guiçonon beguietaric jhez eguitea, eta egoitea guiçonac icusi ere nahi gabe.

7. Cergatic nahi duçu jcusi, içaitera cilhegui etçarena?

Iragaiten da mundua, eta haren guthicia. Sensuen desirec baçaramatcate huna horra ibiltera, baina muga edo orena ioan denean, cer bihurtcen duçu etchera çure ioan ethorrietic conscienciaren pisutatasunaz¹⁹ eta bihotzeco barrayamenduz bertceric?

Ilkite alleguerac hainitzetan bihurtce tristea dakarque: eta arratzeco vespea arrayac biharamuneco goiça ilhun eguitea du.

Halaber haraguizco placer gucia eztiqúi sartcen da, bainan azquenean ausiquitcen du eta herioa emaiten.

Cer ikus deçaqueçu bertceetan, hemen eztacusanic? Huna lurra, cerua eta elementac; hetaz gauça guciac eguinac dire.

¹⁹ (sic)

Cer ikus deçaqueçu nihor ere, dembora lucez ahal dagoqueyenic iguzquiaren azpian?

Aguian uste duçu ase çaitesqueyela, bainan cein eguinen çare.

Munduan den gucia beguien aiticinean bacendu ere, cer liçate jcuste alferric eta vanaloriazcorik baicen?

Alcha gora beguiac Iaincoagana eta othoiz eguiçu çure vanaloriac vanaloriasaleentçat; çure behaçaqu Iaincoac manatuetara.

Zerraçaqu athea çure gainean eta deitçaqu çure gana çure IESUS maitea.

Çaude harequin çure guelan, ceren eztuçu nihon ere halaco baqueric edirenen.

Ilki ezpacine eta ençun ezpacendu munduco elheberriric, hobequi egonen cinen baque onean.

Ordea atseguin duçunaz guero noizpait berriac ençuteaz, hec gatic beharduçu bihotzeco asaldua pairatu.

HOGOY ETA BATGARREN CAPITULUA

Bihotzeco urriquemenduz.

1. Nahi baduçu vertutearen bidean aitcinatu, çaude Iaincoaren beldurtasunean, eta etçarela largogui; bainan iduquitçatçu çure sensu guciac governuaren azpian, eta etçaitecila erguelqui alleguera.

Bilhaçaçu bihotzeco urriquimendua, eta devocionea edirenen duçu.

Urriquimenduac hainitz ontasun aguertcentu ohi baititu bihotzeco largotasunac.

Miretstecoa da, nolatan guiçona vicitce hunetan behin ere ossoqui boz ahal daiten bere desterrua eta arimaco peril uçuac consideratcen eta condatcen dituenean.

2. Gure bihotzeco arintasuna dela causa eta gure escasiez acholaric ez içanez, eztitugu gure arimaren doloreac sentitcen; baina maiz vanaloriazco irri eguiten dugu cinetan nigar eguin behar guenduqueyenean.

Ezta eguiazco libertateric, ez eta allegriança onic Iaincoaren beldurtasunean eta consciencia onean baicen.

Doatsua da norc ere barrayamenduco pachelu guciac iraits baitetçaque, eta bere arimaco indar bil baitatçaque urriquimendu saindu batetara.

Doatsua, norc ere bere ganic kentcen baitu
consciencia liçun eta carga deçaquen gucia.

Gudacaçaçu guiçonon guiça, ohitza ohitzari
garaitcen çayo.

Baldin badaquiçu guiçonon largatcen, hec
ere utsico çaituste çure eguitecoen eguitera.

3. Ez sar bertceen eguitecoetan, eta
etçaitecin corapilla çu baino handiagoen gaucietan.

Duçun bethi beguia erne çure gainean
lehenic, eta avisaçu bereciqui çure burua, çure
adisquide maiteac eguin detçatçun baino lehen.

Guiçonac ezpadituçu çure alde, ez trista
hargatic; bainan duçun damu ceren etçabiltçan ongui
eta beguiratuqui asqui, Iaincoaren servitçari
devocionetsu batec ibilli behar luqueyen beçala.

Hainitzetan guiçonarentçat hobe da eta
segurago vicitce hunetan hainitz consolacione ez
içaitea, haraguzcoric behintçat.

Ordea Iaincoaren consolacioneez goçatcen
ezpagara, edo bakanago sentitcen baditugu, gurea
da falta, ceren eztugun bihotzeco urriquimendua
bilhatcen, eta campoco consolacione vanaloriazcoaz
eztitugun ossoqui²⁰ egoitsten.

²⁰ borthizqui

4. Eçaguteçaçu eztuçula Iaincoaren consolacioneric mereci, aiticitic hainitz tribulacione mereci duçula.

Guiçon perfequi urriquituari mundu gucia pisu çayo eta kiratz.

Guiçon prestuac bethiere causitcen du asqui cergatic damu har eta nigar eguin.

Ecen consideratcen badu bere burua edo laguna, badaqui eztela nihor hemen vici tribulacione gabe; eta cembatenaz ernequiago iarten baita bere buruaren miratcen, hambatenaz tristetcen eta doloratcenago da.

Çucenazco dolorea eta barreneco damu haren erroac dira gure bekatuac, ceinez hala baigauntça amarraturic, non gutitan beguiac goiti baitetçaquegu ceruco gaucen icusteco.

5. Maizago çure heriotcea gogoan bacenerabilla vicitcearen lucetasuna baino, duda gaberíc beroquiago onera cindesque.

Piza bacenetça ere Ifernuco edo Purgatorioco penac çure bihotzean, badut cinetste gogotic paira ceneçaqueyela travaillua eta dolorea, eta etcinatequeyela beldur nahiz den gaitza gatic.

Ordea nola ezpaitçaicu halacoric sartcen bihotzean, eta balacuac maite baititugu oraino, hargatic guelditcen gare hotz eta nagui gure eguinbidetan.

6. Hainitzetan adimendu escasez gorputz ondicozcoa hain arinqui arrancuratcen da.

Eguioçu bada humilqui othoitz Iaincoari arren diçula urriquimenduzco espiritua, eta erroçu Profetarequin batean: *Bascanaçaçü, Iauna, nigarrezco oguiz, eta neurriz indaçü nigar edatera.*